

2 CANVAS MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak zeintzuk diren definitzeko ondorengo ideia hauek proposatzen ditugu:

Gure produktua sortzeko orduan, moda jarraituz eta kalitatezko arropa jantzi ingurumenarekin arduratsuak direnei zuzenduko gatzaizkie, baita jantziak erosteko arazo ekonomikoak dituztenei ere. Horregatik negozio-ereduan, ikuspuntu etikoa duten edo ondo jaztean interesatuta daudenak, haurrak dituztenak, munduaz arduratzen den gizarte talde bat, maila ekonomiko baxua dutenak eta beraien inguruan zer gertatzen den konzientziatuta dauden publiko segmentuak ukituko ditugu.

Inkesta bat egin dugu eta bertako emaitzen bitartez hainbat bezero zihurtatu ditugu. Horrenbestez, hasierako bezero batzuen lehialtasuna lortu dugu eta horien bidez jakingo dugu zenbat arropa ekoiztea den errentagarria. Edukiko dugun bezero kopurua mota guztietakoa izango da, bezero asko diseinuak erakarritakoak izango dira, ikuspuntu etikoa duten kontsumitzaileak ere gure bezeroak izango direla aurreikusten dugu, hauez gain gainerako dendetan erosi ezin dutenak ere izango dira gure erosleak, marka garestiko arropa nahi duen edozeinek ere erosi dezake produktua eta egun berezietarako jantziak nahi dituztenentzat ere aukera ona izan daiteke, oso eroso delako.


Hasiera batean gure bezero garrantzitsuenak jaioberriak dituzten familiak izango dira. Gure ideia ingurumena errespetatuz gaitasun ekonomiko baxua dutenei kalitatezkoa eta jasangarria den arropa izateko aukera eskaintzea da. Beti ere ingurumena errespetatuz.

Erosleen inguruan hitz egiten jarraituz, bigarren eskuko jantziak eta haurrentzako jostailuak erosteko prest dauden eta diseinu garestiak prezio merkean nahi dituzten bezeroek osatuko dute gure merkatu segmentua.

Galdeketa bat egin dugu gure ezagunen artean eta hona hemen lortu ditugun emaitzak:


Prest egongo al zinateke egun berezietarako arropa alokairuan hartzeko? (31rako jantzia, ezkontzak...)

123 erantzun




Demagun zure herrian gure zerbitzu antzeko denda bat irkitzen dutela, prest egongo al zinateke denda hartan gauzak erosteko?

123 erantzun




Erabiltzen ez duzun arropa gure dendara ekartzeko prest egongo zinateke?

123 erantzun



Zer nahiago duzu?

123 erantzun



Lehen esan bezala, gure ideiaren xede publikoa ehungintza-industriaren gehiegikerien aurka egiten duten pertsonak izango dira; hau da, ikuspuntu etikoa dutenak.

Hauetz gain, gure gizartean ekonomikoki zapalduak dauden gizarte-taldeak ere gure bezero izango direla aurreikusten dugu. Gainera, ehungintza-industriaren gehiegikeriak murrizten saiatzea eta produktuei bigarren bizia ematea, gure merkatu segmentuaren edo kolektiboaren ezaugarri nagusietako bat izango da.

Gure merkatu mota merkatu nitxoia izango da, alegia, gure publiko segmentua zabala izango da eta talde horren premiak ezagutu behar ditugu.